



Martxan da Treba Gurasoak prestakuntza ekimena

- **Andoaingo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz, haurren eta nerabeen bizi kalitatea hobetzea helburu duen tresna eskuragarria jarri du andoaindarrentzat**

Andoainen, 24-02-06.- Gurasotasuna gauzatzeko modua nabarmen aldatu da gure gizartean. Beste arlo askotan gertatutakoarekin batera (familia-forma ezberdinak, genero-rolen aldaketa, kultura-aniztasuna...), hemen ere kontzeptu-aldaketa bat egon da. Izan ere, seme-alaben aldetik obedientzia eta diziplina lortzen oinarrituta zegoen guraso-autoritatearen orde, konplexuagoa den eta lan gehiago eskatzen duen kontzeptu bat gailentzen ari da: gurasotasun arduratsuaren edo gurasoen erantzukizunaren kontzeptua, hain zuzen ere.

Hori dela eta, haur eta nerabeen heziketa-prozesuan, guraso guztiek behar dute momenturen batean laguntza, guraso bezala dituzten funtzioak era egokian garatzeko. Laguntza edo sostengu horrek, ordea, ez du izan behar konpontzailea edo terapeutikoa bakarrik; aitzitik, helburu prebentiboa izan behar du, eta familiako kide guztien garapena sustatzea.

Zentzu horretan, Andoaingo udalak Gipuzkoako foru aldundiarekin bat eginaz, gurasotasun positiboan oinarritzen den Gurasoak Trebatuz ekimen pedagogikoa txertatzea erabaki du. Gauzak horrela, Andoaingo Gaztelokalean, haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako 4 hitzaldiko ziklo bat egingo da otsailetik maiatzera bitartean. Bertan, haur eta nerabeen gurasotasun arduratsua sustatzeko bidean interesgarriak diren gai ezberdinak jorratuko dira. Lehen hitzaldia haurrek eta nerabeek interent eta pantailekin duten harremana kudeatzeko formen inguruan izango da. Bigarrenak aldiz, nerabeen osasun mentala izango du aztergai. Hirugarren hitzaldia seme alabaen autoestima elikatzearen ingurukoa izango da. Azkenik, nerabeen gurasoentzat zuzendutako “Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?” hitzaldiarekin bukatuko da zikloa.